

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Eusebio Lazkano Lizarralde

*Oñati,
Gipuzkoa
(1917-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Araotz auzoko Agerre Etxeberri (gaur ezkutatua) baserrian jaio zen. Umea zela, auzoko Antzuena baserrira joan zen familia osoa bizitzera. Aita Aratz Urrutiko Garaikoa baserrikoa zen eta ama Jausoro Azpikoa baserrikoa, biak araoztarrak. Zazpi seme-alaba izan zituzten, Eusebio laugarrena. Zortzi urtetik hamabi urtera arte Araotz auzoko eskolan ibili zen, Claudio Alvarez ("Cristobal Colón") maisuarekin. Gero etxean gelditu zen, harik eta 19 urterekin gerrara eraman zuten arte. Hiru urte pasatu zituen fronte askotan; balaz zauritua ere izan zen. Errasti baserriko Bittori Oruetarekin ezkondu zen. Sei seme-alaba ditu. 1941. urtean Zerrajeran hasi zen lanean; kanalgintzan 12 urte eman eta gero Olateko argindar zentrolean jardun zuen jubilatuta arte. Elkarrizketan Eusebioren semea Iñaki ere egon zen.

Zintak

ONA-109

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2009-09-16
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Agerretik Antzuenera bizitzera

- **Erref:** ONA-109/002
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:00:18. **Bukatu:** 00:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Agerre Etxeberrin jaioa. Antzuenera joan ziren bizitzera, beste etxea zaharra zelako eta eskola urruti zutelako. Araoztarrak zituen gurasoak. Zazpi anai-arrebatan laugarrena zen.

2. Claudio maisuarekin eskolan

- **Erref:** ONA-109/003
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:02:37. **Bukatu:** 00:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Eskola ondoan bizi arren, ez zuen askorik ikasi. Zortzirekin hasi eta hamabi urte arte. Claudio maisua; erdalduna zen. Makilarekin jotzen zuen. Berak ura eramaten zion iturritik.</p>

3. Eskola garbitzen; Don Martin apaiza eta pilota

- **Erref:** ONA-109/007
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:07:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Zigortutako umeek eskola garbitzen zuten, astean behin. Kanposantu ondoko frontoi zaharrean jokatzeko zuten pilotan. Don Martin apaizak partidako txakur handia kobratzen zien, bere pilota erabiltzeagatik. Hark egiten zituen pilotak. Murgialdaikoa zen.</p>

4. Garizuman, txirikiletan

- **Erref:** ONA-109/009
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Txirikiletan egiten zuten Garizuman, Ugaztegiko zelai batean. Garizumako jolasa zen. Gordeketa, Txorro-Morro.

5. Maisua, elizara nor doan kontrolatzen

- **Erref:** ONA-109/011
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:09:29. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Larunbatetan ere eskolara. Maisuak zaintzen zuen elizara nor joaten zen. Belarrondokoak. Joxe Agirre zen sakristaua. Gripearekin hil zen.</p>

6. 19 urterekin gerrara; Asturiasen zauritua

- **Erref:** ONA-109/015
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Eskola bukatu eta baserriko lanetan. 19 urterekin gerrara. Donostiara joateko deialdia. Erdaraz ez zekien. Lizarran 18 egun egin zituen, esku-bonbak botatzen ikasten. Handik Balmasedara. Alferezak esaten ziena. Asturiasen balaz zauritu zuten: lepotik sartu, eta bizkarretik irten. Valdesillaseko ospitalera. Iruñera, gero. 1937.

7. Teruelgo borroka; 18 grado zero azpitik

- **Erref:** ONA-109/016
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:18:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Valdecillaseko ospitalean, minak ezin egonda. Teruelgo borrokara, gero. 18 grado zero azpitik. Hankako behatzak moztzen zizkieten askori, batez ere mairuei. Bera bota onak zituelako salbatu zen, larruzkoak.</p>

8. Zauritu zutenekoa

- **Erref:** ONA-109/019
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:18:38. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Esku-bonbak botatzen zebilela zauritu zuteneko xehetasun gehiago kontatzen ditu.

9. Hildakoari zapatak kenduta

- **Erref:** ONA-109/021
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Toledon zeudela bukatu zen gerra. Bartzelona alderaino joan zen gerra bukatu aurretik. Zapatak apurtuta zituen, eta hildako bati kendu zizkion; beste batek kazadora hartu nahi zuten, baina balaz zulatuta zegoen.

10. Hiru urtean soldadu; behin, etxera ihesi

- **Erref:** ONA-109/022
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:21:12. **Bukatu:** 00:24:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Gerra amaituta ere, ez zuten etxera bidali. 3 urte egin zituen soldadu. Beste batzuek gehiago. Behin, baimenik eman ez zieten, ihes egin zuten etxera. 18 hilabete etxera joan gabe. Zarauzko alferezak lagundu zion gero; beste batek fusilatu egin nahi zuen.

11. Teruelen, anaiak ez zuen ezagutu

- **Erref:** ONA-109/024
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:24:26. **Bukatu:** 00:26:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Beste anaia bat ere soldadu, Gregorio; Teruelen elkartu ziren behin. Anaiak ez zuen ezagutu, itxura eskasa zuelako. Hildakoak mandoetan.

12. Etxera bueltatu eta gero, ezkontzea onena

- **Erref:** ONA-109/026
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:27:07

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Etxera bueltatu zenean, amak esan ziona: garai txarrak zirela, eta onena ezkontzea zuela. 26 urterekin ezkondu zen Errastiko alaba batekin.

13. Gerran hildako araoztarra

- **Erref:** ONA-109/030
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:29:11. **Bukatu:** 00:30:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Gerran, araoztar bat hil zen: Sinforoso, Madinakoa. Balaz hil zutela uste du. Tristeia zen egoera, noiz hilko ziren beldurrez egunero, hiru urtean.</p>

Transkripzioa

-... edo, edo, ze giro egon zan Araotzen gerra denporan? Han hilddakorik egon zan, gerran hil zan iñor Araotzen?
 -Bat hil zan, bat hil zan.
 -Zein izan zan?
 -Sinforoso.
 -Sinforoso? Ze etxetakua?
 -Maiñakua, Azkoittiña.
 -Azkoittiña.
 -Haxe hil zan bakarrik, e?
 -Sinforoso horren apellidua badakitzu?
 -Zumalde.
 -Ta zelan hil zan?
 -Gerran, gerran. Zelan hilgo zan ba? Balia sartuta gero.
 -Baliakin, o bonbiakin be izen leike e?
 -Baliakin uste dot hil zala. Orduan e, tristia zan ha, tristia! Bizitteko pozik ez! Gaur batzuk eta bixar beste batzuk. "Gaur be hil dittuk honenbeste, ta bixar gutakua izango dok". Holaxe beti. Hiru urtian ibili in bihar da hola, e?
 -Bai, ez ibilttia hoba!
 -A, ez ibilttia hoba baiña ez euen ihes eittek, e! Nora?

14. Garia entregatu beharra; Zerrajeran lanean

- **Erref:** ONA-109/032
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Soroan zer zuten. Gerra ostean, garia entregatu beharra. Araban erosten zuten gero, gauez, etxerako nahikoa ez zutelako. Zerrajeran ibili zen lanean. 1941ean hasi zen. Bertako enkargatua zen aita; haren ordeztatu zen. Ur kanalak. Tunelak kanpotarrek egin zituzten; istripua.

15. Kanalak konpontzen eta zentralean

- **Erref:** ONA-109/034
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:35:22. **Bukatu:** 00:36:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>12 urtean kanalak konpontzen ibili ostean, zentralean hasi zen lanean. Denera, 42 bat urte. 65ekin erretiratu zen.</p>

16. Lantegian eta etxean lanean; sei seme-alaba

- **Erref:** ONA-109/036
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:38:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríko bizimodua

Laburpena:

Baserríko lanak berak eta arrebak egiten zituzten. 11 pezeta irabazten zituen. Sei seme-alaba izan zituzten. Moldatu ziren nolabait.

17. Trinitate jaiak, Araotzen

- **Erref:** ONA-109/039
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:39:28. **Bukatu:** 00:41:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Lehenengo jaiak. Trinitateak, bi egunekoak. Mutikoak zirenean, propina ematen zieten. Meza eta dantza. Panderoa eta ahoko soinua. Igandetan ere dantza izaten zen. Hiru taberna, Araotzen. Zumalde, Mantxuena...</p>

18. Auzoko batzarrak, Auzozalia etxean eta saloian

- **Erref:** ONA-109/041
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:41:52. **Bukatu:** 00:44:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Saloia pilotakelua baino lehenago egin zen. Saloia auzoarena zen. Arrasateko batek proposatu, eta auzolanean egina. Antonio Uriartek ordaindu zuen materiala. Auzozalea etxean egiten ziren aurretik batzarrak; alkatea joaten zen, eta kanpaiak jotzen zituzten.

19. Gerra ostean janaria urri

- **Erref:** ONA-109/043
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:46:50. **Bukatu:** 00:49:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserrian zaila da bizimodua, lehen eta orain. Tremesa. Gerra ostean, janarekin estu. Babarruna egunero, urdaiarekin. Txorizoa, egun berezietan bakarrik. "Gaztaina erriak eta sagar irakiña, afai jakiña". Gosaltzeko, esnetaloak ala tremesa. Ogirik ez.

20. Hil kanpaiak eta su kanpaiak; "aingeruak"

- **Erref:** ONA-109/045
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:49:44. **Bukatu:** 00:52:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Kanpaiak: su kanpaiak azkarrak izaten ziren. Aingeru kanpaia tristea zen, eta hil kanpaia ere bai. Gizona edo emakumea hil, berdin jotzen zen. Lehen askoz ume gehiago hiltzen ziren: mutikoek eramaten zituzten kaxa zuriak bizkarrean.</p>

21. Eskola auzolanean egin zuten

- **Erref:** ONA-109/048
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:55:30. **Bukatu:** 00:57:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Arotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Auzolanean egiten ziren gauzak. Bideak, eskola. 40 egunean, eskola egiten: langile bakoitzari ardo kuartilua, iluntzean, Mantxuenan. Ez zioten eman nahi, gaztea zela eta. Harginari "auntza" eramaten zion berak. Uriarte zen obrako arduraduna.</p>

22. Errekara bota, eta hil

- **Erref:** ONA-109/050
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:58:08. **Bukatu:** 00:59:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Araozko presa baino lehenago, baserritar bat errekara bota zuten, amorrua ziotelako, eta hil egin zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com